

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 25a / 706. zenbakia



ORAIN ETA HEMEN: HAUTESKUNDEAK, AUZOZ AUZO/6 • KIROLA: LIDERRA ATXABALPEN/9

AZALA: ALEX AZKARATE

EDERTASUN GIDA/20

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 25**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 26**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- DOMEKA, 27**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 28**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- MARTITZENA, 1**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 2**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 3**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 4**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEIXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze-Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 meza nagusia (elebiduna)	San Isidro eliza
19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Uribarri parrokia	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

'SEXUALITATE OSASUNTSUAK'

Eguenean, hilaren 3an, berbaldia egingo dute Monterronen, 18:30ean, Sexologia Zerbitzuak antolatuta. Agurtzane Ormaza sexologoak eta Emilio Lopez Adan *Beltza* ginekologoak esku hartuko dute.

KORRIKAKO KILOMETROAK

Korrikaren aldeko batzordeak aditzera eman du kilometroak erosi gura dituzten elkarteek honako telefono zenbakira deitu beharko dutela: 943 77 03 69.

BIG BANDA ELGETARA

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean.

NATALIO MAIZTEGI

Etzi, domeka, Natalio Maiztegi zenari omenaldia egingo diote ibarreko lagunek Oñatiko kiroldegian. 16:30ean izango da, eta hainbat dantza taldek esku hartuko dute.

BEGIRALEENDAKO DEIALDIA

Txatxilipurdik begiraleendako deialdia egin du. Udan lan egin beharko dute, udalekuetan. Interesatuak apirilaren 18a aurretik jo beharko dute Txatxilipurdi elkartera.

AEDren AGENDA

14. KORRIKAREN LAGUNTAILE EGITEKO AUKERA
Korrikaren laguntzaile izan gura duenak AEDra jo dezake. 12 euroren truke, Korrikari lagundu eta deskontuak izango ditu.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Ekin Emakume Elkartea, erakundetu

AEDren barruan sortutako Ekin Emakume Elkartea erakunde juridiko autonomo bihurtu zuten. Hala eman zuen aditzera AED elkarteak. Modu horretan, Ekinnek jarraitu zion ARKOk 1992an eta Txatxilipurdik 1994an hasitako bideari. Horrez gain, Ekinen helburuen berri eman zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perratzaille"



— Osintxuko perratzailliakin egon naiz. JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Elurraren eragina hainbat lanbidetan, eta Danbaca Biraren beste bi kontzertu

Asteburuko hitzorduan elurraren ganean berba egingo dute Arrasate Irratian. Hau da, elurra aitzakia hartuta, hainbat lagunengana jo dute euren lanbidean zelan eragiten duen jakiteko, eta, bide batez, lanbide horiek hobeto ezagutzeko.

Honako lagunengana jo dute: eraikuntzan lan egiten duen Xabier, autobideko bidesariko Kristina, baserrian bizi eta lan egiten duen Bixente Pagoaga eta Baqueirako aterpetxe baten lanean diharduen Jon Pagaldairan-

gana, hain zuzen ere. Jonek, esaterako, 1.700 metroko altueran lan egiten du, eta eguaztenean 15 gradu zituzten zero azpitik. Bixentek, berriz, elurrak animaliei zelan eragiten dien azalduko du.

DANBAKA BIRA

Bestalde, Danbaca lehiaketara sailkatu ez ziren taldeen kontzertuak entzungai izango dira asteburuan. Bihar, zapatua, Eskoriatzako Lukas Prest taldearena; eta etzi, domeka, Arrasateko Dolce Vita taldearena.

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 22	0 °C
MAXIMOA Zapatua, 19	8 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	73,1 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 16	4 °C 2 °C 9,3 l/m ²
Eguena, 17	2 °C 1 °C 0,5 l/m ²
Egubakoitza, 18	5 °C 0 °C 4,1 l/m ²
Zapatua, 19	8 °C 3 °C 22,3 l/m ²
Domeka, 20	7 °C 5 °C 22,8 l/m ²
Astelehena, 21	4 °C 0 °C 12,3 l/m ²
Martitzena, 22	3 °C 0 °C 1,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegirata:** Edurraren eragina hainbat ikuspegitik: eraikuntza, baserria...
- 16:00 **Danbaca bira:** Lukas Prest.
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegirata.**
- 16:00 **Danbaca bira:** Dolce Vita.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika.**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
Zoriontzeko eta zozketetan esku hartzeko
943 71 17 31.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu kamioiek domeketan be ibilttie?



MARI CARMEN LLODIO
Etxekoandrie




KATI MEJIAS
Etxekoandrie



MARIA DEL PUERTO
Langillie



OXEL ARRIETA
Langillie



JULIAN OTERINJAUREGI
Erretiraue



LARRAITZ ETXEBERRIA
Ikaslie

Neuk ez dot gure holakorik. Aste bukaeretan jente asko ibiltten da hara eta hona, eta kamioiek ibiltie ez litzake ona izengo. Badakit eurendako kaltegarrixe dala, baiñe geuretako...

Neuri ez litxakit gustauko domeketan kamioiek ibiltie. Aste bukaeretan kotxien ibiltten dienendako ez litzake bape ona izengo. Oin, kamioneruek kejetako eskubide dana daukie.

Ez dakit. Kamioñeruenda-ko kaltegarrixe izengo da lege hori, eta neu kamioiaz ibilliko banitz, seguruenik kejavu egingo nitzake. Neuk, baiñe, domeketan ez dot gure kamioirik.

Neuk ez dot gure domeketan kamioirik. Jaiegune da, eta jentiek kanpora jueteko aprobetxetan dau. Eta argi dau kamioiek peligrosuek diela. Gureu dot egun baten kamioirik ez egotie.

Neuk ez dakit domeketan kamioiek zenbateraiño kaltetie egingo leukien, baiñe kaltetie haundixe izengo balitz, neuk ez neuke holakorik gureko. Eurendako, baiñe, hori ez da ona.

Neuk domeketan ez dot kotxerik hartzen, baiñe pentsetan dot trafikuendako ez dala bape ona izengo. Argi dauket eurendako faenie dala, domekan geldie egon bihera...

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AMAIA UDAL ANTZOKIARI KRITIKAK Irakurle batzuek esan digute Udal Antzokiaren zerbitzuarekin haserre daudela. Orain dela gutxi, zinekluba ikustera joan ziren, eta, txarteldegia zabaldu bezain laster filma ematen hasi ziren. Hortaz, lagun asko filma hasita sartu ziren aretora. Horrez gain, "ulertezina" deritzote orain dela gutxi gertatutakoari: langile baten senide bat hil zelako, filmik ez ematea.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 10

ZAHARRAK / 14

'Oporrak bakean'

Uztailaren 3tik irailaren 3ra Saharako hamabi errefuxiatu Arrasatera etorriko dira.

Iñaki Saratxaga margolaria

Iñaki Saratxaga margolari eta argazkilari bilbotarrak erakusketa jarri du Arregi galerian.

Erretiratuen txapelketak

Eguaztenean, Debagoieneko erretiratuen mahai-joko txapelketa egin zuten Abaroan.

ASTEKODATUA

12

UME SAHARAR EKARRIKO DITUZTE UZTAILEAN

Hamabi ume saharar ekarriko dituzte uztailean Arrasatera. Irailera arte egongo dira hemen. Eki- men hori *Oporrak bakean* programaren bitartez antolatu dute hainbat elkartek.

BESTEKEESANA

“Espainiarra ideia batek menderatua bizi izan da, nire iritziz zeharo kaltegarria, eta hori batasunari dagokiona da. Beste ezer hoberik ez dela sinetsi du eta batasun erlijioso, politiko edo beste edozein zeinukoa lortzeagatik itzelkeriarik handienak eta era guztietako jazarpenak buru daitezkeela pentsatu du. Amesturiko batasuna ez da erdietsi, baina -aldiz- etsipen kolektiboaren maila batera iritsi da, noizean behin berpizten dena. (...) Ez dut uste estatuak direnik munduko gizarte desberdinetarako irtenbidea. Badakit mintzatzen ari naizela txiki eta ahul izateko eskema mugatu eta laburretik, baina egun ez da ezelako estatu zeharo unibertsala. Eta ez dut uste inoiz egongo denik, batasuna (...) kontzeptu helezina baita”

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'ARGIA'/05-02-20

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Zuriak, grisak eta beltzak

Bada Europa izeneko paradisu bat, hala kontatu didate, zeinari Konstituzio bat oparitu-ko omen dioten. Atzo batasun ekonomiko, gaur politiko eta bihar kulturala izango omen den Europaren paradisu. Eta bertako biztanleei galdetu ei diete beraren inguruan. Nago, gure herri honetako biztanleen ahuldade bera badu haien iritzi publikoak, bertako makinaria mediatiko eta politikoak nahi dutena erantzungo dutela. Erreferendum izena jarri ei diote galdetara horri, eta europarra sentitzen ez naizen aldetik, ez dut horren garrantzizkotzat jo egin duten galdera erretoriko hori, nahiz eta oihartzun egin duen nire erantzuna, eman diedan. Nire kontraesanak.

Baina honen harira, zinez diotsuet, gure Arrasateren lo- goxoan horrenbeste ikusten ez diren irudiak badirela bizilekuztat dudan Bilbo honetan. Europa horrek eraikiko ei

dituen irudiak badirela bizilekuztat dudan Bilbo honetan. Europa horrek eraikiko ei dituen zubien irudiak ikusi ditut han-hemenka. Progresoa- ren, ongizatearen eta aberastasu- naren zubiak zirela entzuna nuen. Eta nik San Frantzisko auzoan, trenbideen gainetik igarotzen den zubiari erreparatu diot. Eta Europa horren gorrotoa, miseria eta estali nahi duten egia gordina ikusi ditut zubi horretatik begira, haien buruak bertatik noiz jaurti-ko zain.

Bien bitartean, gure herriaren zatitxo batetan burutuko diren hurrengo hauteskunderi begira nabil. Eta badirudi, naziek ohi zuten eran, koloretako zerrendatan sailkatuko gaituztela milaka eta milaka batzuk. Mundua zuri-beltzez ikusten duten horiek ez dakite ordea, batzuen kolorea gorria dela, odola bezain bizia, zuriz eta beltzez tindatu nahi badute ere. Ea ordurako, gure iritzi publi-koaren heldutasunak bere lekua bilatzen duen...

“Mundua zuri- beltzez ikusten duten horiek ez dakite ordea, batzuen kolorea gorria dela, odola bezain bizia”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urtzelai
Ubane Madera

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundinano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Akeiko lurrak garbitzeko lanak, bukatuta

Akeiko zabortegiaren eremuko lurrak berreskuratuta daude, berreskuratuta eta garbituta. Hala eman dute aditzera. 60ko hamarkadan erabili zuten Akeiko lurra lehen aldiz zaborra hartzeko, eta 80ko hamarkadan erraustegia jarri zuten. 1996an Akei itxi zuten, eta 2000n Udala hasi zen lurra berreskuratzeke ahaleginetan. 2004an Mankomunitateak eta Jaurlearitzako IHOBE elkarteak hitzarmena sinatu zuten hori lortzeko. Garbiketa hori egiten 2.378.547 euro gastatu dituzte. %75 IHOBEk ordaindu du, eta gainontzekoa Mankomunitateak.

Jarrai-Haika-Segi auziaren kontra

Joan den egunerako ezker abertzaleko gazteek mobilizazio eguna deitu zuten, Madrilgo Auzitegi Nazionalean Jarrai-Haika-Segi gazte erakundearen kontra egiten dabilzan epaiketa salatzen. Egunerako bi kale agerraldi deitu zituzten herrian: bata, 12:00etarako eta bestea, 19:00etarako. Bietan, Ertzaintzaren furgonetek Seber Altube inguratu zuten eta ez zuten kale agerraldirik egiten utzi, gazteek saiakerak egin zituzten arren.

Ibarreko hainbat ikastetxetan ikasleek geldialdiak egin zituzten deialdiarekin bat egiteko.

Isabel Rico, cante flamenkoaren txapelduna

Joan den zapatuan, Al Andalus elkartearen III. Cante Flamenkoaren Txapelketako finalak jendez gainezka jarri zuen Amaia Udal Antzokia. Malagan bizi, baina Kordobakoa den Isabel Rico izan zen irabazlea, eta hark eraman zuen Al Andalusek egindako garaikurra (Portaloia eta gitarra flamenkoa ageri dira bertan). Euskal Herrian bizi den sailkatu onenaren saria Paco Guerrerok eskuratu zuen; eta joan-etorriko cante onenaren saria Juan Luis Victorrek.

**Biolentzia sexistaren kontrako batzarra**

Joan den egunean, Arrasateko biolentzia sexistaren kontrako plataformak batzarra egin zuen udaletxean. Taldearen helburua da emakumeek jasaten duten biolentziaren kontrako jarduna gizarteratzea. Horretarako, batzarrak egiten dituzte sindikatu, gizarte eragile eta bestelakoekin. Azkeneko gertakariak aztertu zituzten.

**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran***Minbizia*

Nik ez nuke egingo", horixe pentsatu nuen orain dela bi urte Sustatun Joxe Aranzabalen lehenengo adierazpena -Medikuak esan dit minbizia dudala- irakurri nuenean. "Ez da nire estiloa gauzak horrela kontatzea", pentsatu nuen. Hurrengo kapituluak jaso nituenean, zehaztu egiak iruditu zitzaizkidan. Bere intimitatean sartzen gintue-

la/ginela pentsatu nuen, baina bere nahia zen. Zorionez Joxek onera egin du, minbizia eta bizipenak jende askorekin partekatu ditu, eta askok eskertu dute hori. Pauso oso handia eman du: minbiziaren gaineko tabua apurtu du, Jon Salaberri arrasatearrak hiesaren gainekoa apurtu zuen moduan. Biek normaltasunez berba egin zuten euren

gaitzetaz, euren eta besteen lagungarri izan zedin.

Badakit Joxe ez dela erretzailea, jaten eta edaten zaintzen dela eta kirola egitea gustuko duela. Horregatik, jende asko harritu zen minbizia zuela jakitean. Zoritxarrez jende askok dauka gaitz hori eta gure ibarrean ere kasu ugari eman dira. Tabuak apurtzea beti da positiboa, eta aproposa litzateke aztertzea Debagoienean zerk sortzen duen minbizia. Beste pauso garrantzitsu bat litzateke.

ASTEKO IRUDIA**ELUR MAILA IGO EGIN DA, BAINA KALEAN IZOTZA GELDITU DA**

Aurtengo negua azken urteotakoa baino hotzagoa dabil izaten. Dagoeneko elurra gogoz egin du, eta, eguraldi iragarleek aditzera eman dutenaren arabera, martxoan ere elurra egingo du, seguruenik. Behin elur maila igota, giroa gehiago hoztu da eta izotza etorri da gurera. Izotza elurra baino kalte-

garriagoa da, ez delako ikusten eta bortitzagoa delako. Zero azpiko tenperaturak izan ditugu astean, eta horrek zailtasunak eragin ditu. Santa Barbara azpitako ahateen urmaelera jo dugu ura izoztu egin ote den egiaztatzera. Horren orde, inguruko zubiak oso labainkor aurkitu ditugu. /I.B.

db KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



BADIRUDI ILUNTZEKOEK BADAKITELA ESKIATZEN, ALA?

Urtarrileko azken asteburuan Iluntz tabernako 45 lagun Sain Lary-ra (Frantzia) joan ziren eskiatzera. Markelek eman digu bidaia horren berri: "Normalean, tabernatik sagardotegi irteerak eta horrelakoak antolatzen ditugu, baina bagenekienez gure artean eski zale asko zeudela, eskiatzera joateko irteera antolatu genuen". Hala, asteburua egin zuten Saint Lary-n: "Behe-laino apur bat izan genuen, baina goialdean sekulako eguraldia egiten zuen, eta elur mordoa zegoen; elur hautsa, gainera". Iluntzetik joandakoez gura beste gozatu zuten, baina Markel ez zen oso pozik itzuli: "Antolatzen ibili ginenok ez ginen oso gustura geratu, agentziakoak ez zirelako bat ere ondo portatu. Bestela, eskiatzen ederto ibili ginen".



EGIPE ELKARTEAN, TXAPELAK BEHARREAN PUNTA-PUNTAKO GENEROA OPARITU ZUTEN

Goiko argazkiko lagunak Egipeko Mus eta Tute Txapelketako irabazleak dira. Musean abilenak direla erakutsi zuten Patxi Eralla Arteta-k eta Vitoriano Agirre Bizkei-k. Tutean, berriz, Pedro Azurmendi eta Julio Garcia izan ziren onenak. Irabazleak izan arren, ez dira txapeldunak, argazkian ez da-eta txapelik azaltzen. Alde horretatik, elkarteko antolatzaileek erabaki zuten dirua

txapelak erosten gastatu beharrean, genero ona erosten gastatzea. Ez da ideia txarra, seguru sabel batek edo bestek eskertu zuela. Hori bai, guztiendako izan zen garaikurra, eta baita bi litroko txanpan botila eta kalitate oneko ardoa ere, *Gran Reserva* delakoa. Hori guztia gutxi balitz, eta elkarte gastronomiko baten zeudela kontuan izanda, afaria ere ez zen nolanhikoa izan.



KULTURA TALDEAK EHNAREN ALDE

Argazkikoak Arrasateko hainbat kultura taldeko ordezkariak dira. Hortxe daude Txikitxu Arrostitz, Lore Gazteak, Santamas Komisioa, Arrasateko Txalaparta Taldea, eta Arrasateko idazle eta musika talde batzuk. EHNaren aldeko lehenengo ekimenean herriko kirol taldeen ordezkariak izan ziren, eta kultura-rekin zerikusia daukaten taldeak izan ziren aurrekoan Monterronen. Jakin, martxoaren 5ean ere EHNA egiteko aukera izango dela Monterronen bertan. Horretarako, erroldatze agiriaren fotokopia, hiru argazki eta hamabost euro behar dira. Erraztasun guztiak dituzue, hortaz, animatu!!!

ERREFERENDUMA/ Arrasatek baietz esan dio Europako Konstituzioari

Herritarren erdiak baino gehiagok ez zuen bozkatu; botoen artean, baietza irabazle


UBANE MADERA

Ibarreko herriek ez bezala eta Eskoriatzarekin batera, Arrasatek baietz esan dio Europako Konstituzioaren gaineko galdeketari. Boto-emaielen artean, %53,88k egin zuten alde eta %46,12k kontra. Edozelan ere, abstentzioa izan zen nagusi: %62,78.

Lasaitasuna izan zen domekako erreferendumean. Lasaitasuna baino gehiago, asperraldia, askotan. Izan ere, boto-emaiela gutxi erabili zuen botoa emateko eskubidea: %37,22k bakarrik bozkatu zuten.

Baiezkoak irabazi zuen, 540 botoen aldearekin. Edozelan ere, izandako abstentzio altua ikusita, argi geratu zen Arrasaten ere interes falta orokorra dagoela Europarekiko.

Auzoak aztertuz gero, nekazari auzoetan izan zen abstentziorik altuena (%85,08). Eta herriko sei auzoen artean, hiruk Konstituzioaren alde egin zuten —Santa Marina, San Andres eta Uribarri— eta gainerakoek kontra —erdialdea, Musakola eta nekazari auzoak.



Hautestontziak beste hauteskunde batzuetan baino hutsago ikusten ziren domekako jardunaldian.

Erreferendumeko datuak auzoz auzo

	Erdialdea	Santa Marina	Musakola	San Andres	Uribarri	Auzoak	Guztira
Hautesleen kopurua	6.079 %100	2.327 %100	2.252 %100	2.879 %100	4.750 %100	1.019 %100	19.306 %100
Boto-emaiela	2.328 %38,3	807 %34,68	924 %41,03	1.169 %40,6	1.806 %38,02	152 %14,92	7.186 %37,2
Boto zuria	48 %2,06	25 %3,1	18 %1,95	32 %2,74	41 %2,27	5 %3,29	169 %2,35
Baliogabeko botoak	13 %0,56	6 %0,74	13 %1,41	3 %0,26	14 %0,78	2 %1,32	51 %0,71
Abstentzioa	3.751 %61,7	1.520 %65,32	1.328 %58,97	1.710 %59,4	2.944 %61,98	867 %85,08	12.120 %62,78
BAI	981 %43,27	574 %73,97	435 %48,71	769 %67,81	927 %52,94	67 %46,21	3.753 %53,88
EZ	1.286 %56,73	202 %26,03	458 %51,29	365 %32,19	824 %47,06	78 %53,79	3.213 %46,12

Prezio merkeak, gauez Laubide erabili ahal izateko

U.M.

Uste baino jende gutxiagok erabiltzen du Laubideko aparkalekua gauez. Hori ikusita, Udalak gogora ekarri gura du prezio bereziak ezarri zituela, erabilera bultzatzeko: 0,05 euro orduko, 00:00etatik 08:00etara.

Hain zuzen, 0,4 euro kostatzen da automobila gauez —00:00etatik 08:00etara— Laubideko aparkalekuan uztea, 0,05 euro orduko. 20:00etatik 00:00etara eta 08:00etatik 09:00etara uztea, berriz, 0,10 euro orduko. Horrenbestez, 20:00etatik 08:00etara utziz gero, 0,8 euro kostatzen da (gau guztia).

Ez dirudi kopuru handia denik. Udalak, behintzat, merkeak zirelakoan erabaki zuen iaz

tarifa horiek ipintzea. Helburua zen Biteriko aparkaleku berria eraiki artean sor daitezkeen aparkaleku arazoak saihesteko, jendeari tarifa merkeak eskaintzea Laubideko aparkalekua erabil zezan.

Baina dagoeneko urtebete pasatu da, eta Laubideko aparkalekua uste baino, dezente gutxiago erabiltzen dela ikusi du Udalak. Horrenbestez, herritarrei gogora ekarri gura die aparkaleku hark dituen tarifa bereziak. Horretarako, besteak beste, kartel berria ipini dute aparkalekuaren sarrera-irteeran, herritarrei prezioen berri emateko.

Bestalde, gaueko prezioez gain, egunekoie begiratuta, aurtentzen orduak 0,10eko igoera izan du; horrenbestez, 0,50 kostatzen da.



Aparkalekuaren sarreran kartel berria ipini dute, prezioen berri emateko.

LABUR

Sexualitate osasuntsua berbagai Monterronen

Martxoaren 3an, eguenean, sexualitatearen zenbait aspektu landuko dituzte Monterronen, 18:00etan hasita. Agurtzane Omaza sexologoa eta Emilio Lopez Adan ginekologoa sexualitate osasuntsua oso kontzeptu zabal delako erakutsiko dute; besteak beste, sexualitatearen inguruan sortzen zaizkigun kezkak eta azaltzen ahaleginduko dira, mahai-inguruaren bitartez. Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatu du ekimena.

Energia fotovoltaikoaren gaineko ikastaroa

Basabalar elkarteak jakinarazi gura du Arrasate 2005 Ikastaro Fotovoltaikoa antolatzeko asmoarekin dabilela aurtentzen. Maiatzean, ekainean eta irailan lantzeko asmoa du, 60 ordukoa, hiru modulutan banatuta. Teoriarekin batera, praktikak ere bultzatuko ditu. Aurrerago emango du informazio zabalagoa elkarteak.

Apirileko hauteskundeetarako botoa, posta bidez

EAJ-PNV alderdiak zera jakinarazi gura du: apirilaren 17ko hauteskundeetarako botoa posta bidez eman gura duenari Batzokian lagunduko diotela. Otsailaren 28tik apirilaren 5era arteko epea dago horretarako, biak barne. Ordutegia, berriz, honako hau da: astelehenean eguenera, 17:00etatik 20:00etara.

Meatz Erreka elkartearen urteko batzar orokorra

Gaur, barikua, egingo du batzar orokorra Meatz Erreka elkarte gastronomikoak. 19:00etan da lehenengo deia eta 19:30ean, bigarrena. Honako gaiak landuko dituzte, besteak beste: aurreko akta irakurri eta onartu; 2004ko jardunaldiko emaitzen jakinarazpena eta onartzea; 2004ko ekintzen deskargua; elkartetik joandako eta elkartera etorritako bazkideen berri eman eta elkartearen Zuzendari Batzordean egin dituzten zenbait aldaketaren berri eman. Halaber, elkartearen Zuzendari Batzordeak jakinarazi dionez batzarra egin ostean auzoan egingo dutela, eta bazkide guztiak daudela gonbidatuta.

GIZARTEA / 'OPORRAK BAKEAN' PROGRAMA

Familiak behar dira, udan saharar umeak hartzeko


UBANE MADERA

Beste urtebetez, saharar errefuxiatuen kanpalekuetatik umeak ekarriko dituzte Euskal Herrira. Guztira, 460. Arrasateko Udalari ekimen horretan parte hartzeko eskatu diote. Hala, 12 ume ekarriko dituzte herrira; beraz, 12 familia behar dira.

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak ikastetxeetara ohar bat bidaliko du, udan saharar umeak etxean hartuko dituzten familiak lortzeko. Edozelan ere, beste edozeinek umeren bat hartzeko interesa badu, martxoaren 16ra arte du izena emateko. Horretarako, Prebentzio Zerbitzura jo daiteke edo honako telefono hauetara deitu: 943 79 09 00 (Udala); 685 72 48 16/17/18 (NUBI elkarte).

BI HILABETE ARRASATEN

Oporrak bakean programaren eskutik Arrasatera etorriko diren umeak 7 eta 12 urte bitartekoak dira. Errefuxiatuen kanpalekuan jaiotakoak eta hazitakoak dira. Horren ondorioz, osasun, elikadura eta hezkuntza aldetik gabezia handiak dituzte. Eta, esate baterako, udan 50 graduko tenperaturak jasaten dituzte. Hori dela eta, *Oporrak bakean* programaren helburuak honakoak dira: "haurrek aukera izatea ondo pasatzeko eta liburuetan bakarrik ikusi izan dituzten zenbait errealitate ezagutzeko; osasun aldetik ume bakoitzari osasun azterketa egitea, eta behar izanez gero tratamendua ematea; elikadura aldetik bi hilabetez, behintzat, haien elikadura gabeziei aurre egitea; eta, oro har, arrasatearrek sahararren egoeraren berri izatea eta Sahararen eta Euskal Herriaren arteko harremanak estutzea".



lax ere izan ziren saharar umeak Arrasaten; irudian, udaletxea bisititzen.

Bestalde, Udalak jakinarazi du Udalak berak ordainduko dituela umeen joan-etorri bidaiak. Eta NUBI elkarteak jakinarazi digu elkarrekin bera arduratuko dela umeen Arrasateko egonaldiaren kudeaketarekin. Umeendako eta gurasoendako ekintzak-eta antolatuko dituzte, besteak beste. Era berean,

Eusko Jaurlaritzaren arduratuko da umeen osasun beharrek eragindako gastuekin; baita ere umeen erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguru pribatuarekin.

Saharar umeak uztailaren 3an iritsiko dira eta bi hilabetez izango dira Arrasaten, irailaren 3ra arte, hain zuzen ere.

Agerre-Santa Teresa gunearen gaineko proiektua, aurrera

U.M.

Agerre-Santa Teresa gunea berriro urbanizatzeko proiektua egingo dute laster, oraingo astean oniritzia eman diote eta lanen gaineko aurreproiektuari. Hori bai, aldaketa batzuk egin beharko dituzte.

Ur eta saneamendu azpiegiturak eta kale argiak berritu, argindar kableak lur azpian sartu, zailtasunak dituztenendako oztopoak ezabatu, etxebizitzetarako sarre-rak hobetu eta berdeguneak egokitu. Agerre-Santa Teresa inguruan lan horiek guztiak egitea da Udalaren asmoa. Hango espaloiak eta galtzadak berriro zolatzeko asmoa ere badu. Eta baita aparkalekuak egokitzeko ere.

Hain zuzen ere, hori guztiori aurreproiektuan idatzi eta Santa Marinako alkatetzari bidali zion Udalak abenduan, haien ekarpenak edo proposamenak jasotzeko. Hori egiteko epea bukatu zaie eta ez dute ekarpenik jaso Santa Marinako alkatetzatik. Bai, ordea, Udaleko Hirigintza Sailetik. Horrenbestez, orain proiektua idatziko dute eta horren ostean esleituko dituzte berrikuntza lanak. Betiere, Hirigintza Sailak egindako proposamenak kontuan hartuta.

Horien arabera, Santa Marinako biribilgunea hobetu egingo dute, lur azpiko aparkalekuak eraikitzeko aukera aztertuko dute, eta, oro har, auzoko oztopoak murrizteko ahalegin berezia egingo dute.

LABUR

Monterron zeharkatzen duen oinezkoen pasealekua konpondu egingo dute

Monterrongo zuhaitzak atera zituztenean, kamioiak ibili ziren lanean parke barruan. Horren ondorioz, parkea zeharkatzen duen oinezkoen pasealekuaren zenbait zati egoera txarrean geratu ziren, ibiltzeko egoera desegokian. Bestalde, parkean egin diren lanean ondorioz eta segurtasun kontuengatik, azken ia lau hilabetez itxita izan da Monterron. Horren aurrean, oraingo astean Udalak erabaki du Monterrondik pasatzen den oinezkoendako pasealekua lehenbailehen konpontzea; eta hori egin eta gero, parkea zabaltzea. Jakinarazi digute lehenengo Belgikatik ekarritako zuhaitzak landatu behar dituztela, eta horren ostean hasiko direla pasealekuko konponketa lanak egiten.

Astlehenean jakinaraziko dute kartel lehiaketaren irabazlea zein izan den

Emakume Txokotik adierazi digute Martxoaren 8ko VIII. Kartel Lehiaketako emaitza astelehen eguerdian jakinaraziko dutela. Esan digutenez, aurten 16 lagunek parte hartu du lehiaketan. Irabazlearen izena jakinaraztearekin batera, aurtengo Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatuko dituzten ekitaldien nondik norakoak ere kontatuko dituzte.

EKIN elkarteko Batzar Nagusirako deialdia bazkideei

AED, Txatxilipurdi eta EKINeko bazkideei:

Berriki urteko Batzar Nagusietarako deialdia helarazi dizuegu hiru elkarteotako kideei. EKINeko deialdian akats bat izan dela-eta, hori zuzentzea helburu, hauxe duzue deialdi zuzena:

EKIN elkarteko Batzar Nagusirako deialdia bazkideei

Noiz: 2005eko martxoaren 2an (lehen martxoaren 17an)

Non: Elkartearen egoitzan, Pablo Uranga 4an.

Ordua: 18:30ean lehen deialdian eta 19:00etan bigarren.


Gai zerrenda:

- 1.—2004ko aktaren onarpena
- 2.—2004ko jardueraren azalpena
- 3.—2004ko diru-kontuak
- 4.—2005eko egitasmoak
- 5.—2005eko aurrekontua
- 6.—2005eko bazkide kuota finkatzea
- 7.—Zuzendaritza Batzordea berritzea
- 8.—Arrasateko euskalgintzaren plan estrategikoaren azalpena
- 9.—Galdera eta erreguak



Laguntzaileak:

■ Emakume Saila



Kalagorriko 'infernua' hoztuta, Padura izango da bihar Iturripen

XABIER URTZELAI


Hirugarren postuan dagoen Padura izango da bihar Iturripen. Arrigorriagako mutilek ondo dakite Mugarri Alkesa bolada onean dagoela, Errioxa aldean galdetu besterik ez dute, bestela. Horregatik, hobe dute joaneko partiduan lortutako emaitzari kasurik ez egin.

Padurak 77-64 irabazi zion Mugarri Alkesari Arrigorriagan, baina azaroan izan zen hori, eta ordutik hona Arrasatek beste talde bat du, nahiz eta jokalaria berekin osatuta egon.

Gorka Zurututzaren mutilek bost norgehiagoka irabazi dituzte jarraian, horietako asko kontrario gogorren kontra. Eta, joan den asteko norgehiagoka izan zen horren erakusle. Nahiz eta euren etxean jokatu, errioxarrak Arrasate baino gutxiago izan ziren.

PADURAKOAK, JOKALARI ALTUAK

Hainbat aste min hartuta egon eta gero, joan den astean itzuli zen kantxara Ugutz Basauri jokalaria bergararra: "Gustura ibili nintzen, eta taldea ere oso ondo ikusi nuen. Bistan da jokalaria berak egon arren lehen baino askoz hobeto jokatzen dugula. Gabonak arte taldekideok ez genuen elkar ondo ulertzen, eta horregatik galdu genituen norgehiagoka asko. Paduraren kontra, adi-



X.U.

Arrasatekoekin alderatuta, Padurako jokalaria handiagoak dira.

bidez, argi ikusi genuen ez zirela gu baino hobeak; baina hamahiru puntuko aldeagatik irabazi ziguten. Bihar, baina, dakigun moduan jokatzen badugu, irabazi egingo diegu".

GAZTETXOEN MAILAN ERE EDERTO

Talde nagusiaz gain, beheko kategorietako taldeak ere ezin hobeto dabilta. Atletico San Sebastian

taldeari irabazita (71-55), junior mailako taldea lehenengo mailan izango da datorren urtean. Bi talde horiek zeuden igoera postua eskuratzeko lehian, eta arrasatearrek ez zieten inongo aukerarik eman. Horrekin batera, infantil mailako taldeek eta kadete mailakoak ere irabazi egin zuten. Ezin zaio asteburu bati gehiago eskatu.

"Urnietako xake taldeari irabazi egin behar diogu, jai daukagu bestela"

X.U.

Joan den astean Aretxabaletako Arlutz taldearen kontra galdu egin zuen Arrasatek (2,5-1,5). Hala ere, irabazitako puntu eta erdiak balio handia dauka, baldin eta zapatuan Urnietari irabazten badiote. Hori esan digu Tornayk: "Guk 7,5 puntu ditugu, eta Urnietak guk baino bi puntu gehiago ditu. Horrek esan gura du zerbait

egin gura badugu bihar Urnietan irabazi egin beharko dugula, eta 1-3ko aldearekin bada, hobeto. Hala, sailkapenean parekatuta geratuko ginateke".

Arrasateko taldeak badaki geratzen zaizkion bi jardunaldiak ezin gogorragoak izango direla; horregatik da garrantzitsua biharko norgehiagoka.

Eskola arteko xakeari dagozkionez, joan den asteburuan jokat

tu zuten ibarreko eta Eibarko gazte xakelariak Debagoieneko Txapelketa. Hala, Asier Etxagibel gazte arrasatearra izan zen txapelketako onena, eta Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu da. Harekin batera egongo da Andoni Gomez, alebin mailan hirugarrena geratu zena. Benjamin mailan, berriz, Eleder Gay gaztetxoak erakutsi zuen indartsu datorrela.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Fuxion	7-3
Iriztu Taberna - Saukelu Scream	1-3
AC Surcos - Torpedo Musakola	7-4
Lasagabaster - You Know!	3-3
La Kuadrilla - Goma2	16-3
Ekipo Aldeano - AT Celaya	2-10
Dribling - Billy & The Cowboys	6-2
Manhatan Pippol - Irati Taberna	5-9
Betrayer - H.L.H 108	4-3

PARTIDUAK (KOPA)

OTSAILAK 26, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00:	Lasagabaster - Fuxion	Iriztu Tab.
11:00:	Iriztu Tab - AT Celaya	Antolatzaiz.
12:00:	Saukelu Scream - Goma2	Antolatzaiz.
16:00:	Torpedo M. - Tomahawk	Antolatzaiz.
17:00:	Billy & The... - HLB 108	Antolatzaiz.

Oharra: Lehenengo partidua ligan atzeratuta-ko norgehiagoka da, baina gainontzekoak Kopako final-zortzirenetakoak dira. Jakin, Billy & The Cowboys taldeko jokalaria batek bi partiduko zigorra bete beharko duela.

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA		P	J
1.	Irati Taberna	19	12
2.	You Know!	19	12
3.	AC Surcos	17	12
4.	Betrayer	16	11
5.	Saukelu Scream	16	11
6.	Dribling	15	12
7.	AT Celaya	14	11
8.	Lasagabaster	14	10
9.	Iriztu Taberna	12	11
10.	La Kuadrilla	10	12
11.	Goma2	10	11
12.	Abokajarro	9	11
13.	Billy & The Cowboys	9	11
14.	H.L.B. 108	8	12
15.	Torpedo Musakola	7	12
16.	Fuxion	6	10
17.	Tomahawk	6	11
18.	Manhatan Pippol	4	11
19.	Ekipo Aldeano	3	11



KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOAIA

Mugarri Alkesa - Padura
Lehen maila. Zapatua. 18:00. Iturripen.

Goierri CAF - Mugarri Alkesa
Juniorrak. Domekan. 12:15. Urretxun.

FUTBOLA

Mondra - Tolosa
Preferentea. Zapatua. 16:30. Atxabalpen.

Eibartarrak - Mondra
Ohor. Gazteak. Zapatua. 15:30. Unben.

Zestoa - Arrasate
Gazteak. Zapatua. 16:15. Zubiaurren.

Texas Lasartearra - Arrasate
Ohor Kadet. Domekan. 11:45. Lasarten.

Amaikak Bat - Arrasate
Infantilak. Domekan. 17:30. Zumaian.

Mondra - Mutriku
Emakumeak. Domekan. 11:00. Atxabalpe.

ESKUBALOAIA

AGR Arrasate - Leitzaran

Lehen territ. Zapatua. 18:15. Musakolan.

BKL CAF - Arrasate
Bigarren territ. Domekan. 11:15. Beasainen.

PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)

Elgoibar - Arrasate
Eguna eta ordua zahazteke.

EMAITZAK

SASKIBALOAIA

Lehen maila. Kalagorri-Mugarri Alkesa... 72-83

Juniorrak. Mugarri Alkesa-AT S.S. 71-55

Kadeteak. Mugarri Alkesa-Intern. 63-36

Infantilak. Mugarri Alkesa-Tolosa. 42-37

Infantilak. Mugarri Alkesa-Askatuak. 38-44

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Gorka ileapaindegia peluqueria

ARRASATE
Balmes 40 - 943 79 70 25
ARETXABALETAKO

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6-1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Bihar ikusi ahal izango da zergatik den Tolosa preferenteko lider

XABIER URTZELAI

Orain arte puntu gehien batu dituen taldea izango da bihar Atxabalpen, Tolosa. Horrek ematen du aukera ikusteko ondoen dabilen taldearen eta Mondraren artean ze alde dagoen. Bihar erakuts dezake Mondrak gorago egon beharko zukeela.

Bihar arratsaldean (16:30ean), preferenteko talde indartsuena etorriko da Atxabalpera. Tolosan jokatu zuenean, talde zuri-moreak 1-0 galdu zuen. Taldeko jokalaririk Iban Garai *Muxi*-k badauki zertan hobetu beharko duten: "Aurrelari azkarrak dituzte, baloia ondo babesten dutenak. Jokalari erabakigarria, baina, ezker hegalean jokatzen duena da. Erdiraketa eta joko aldaketa ikusgarriak egiten ditu, eta hori da zaindu beharko duguna. Ezin diegu utzi eroso jokatzen. Aurrealdean presionatu beharko dugu, eta luze jokatu dezatela. Han jokatu genuenean, atzealdean sartuta ibili ginen, eta gura zutena egin zuten. Gora egin genuenean, baina, zailtasunak izan zituzten, eta horretan ahaleginu beharko gara bihar".

Nahiz eta liderra Atxabalpe-



GOIENKARIA

Markel, Tolosako jokalaririk baten aurrean jaurtiketa egiteko gertu.

ra etorri, Mondrako jokalaririk ez daude kikilduta: "Irabazteko asmoz zelairatuko gara, duda barik, eta eskertzekoa izango da jarraitzaileen berotasuna. Mondrako zaleei Atxabalpera joateko animatu gura diet".

Ia dena egin beharko du ondo Mondrak; izan ere, eskuartearen ditugun datuek diote Tolosa tal-

de indartsua dela. Jokaturako 25 partiduetatik 15 irabazi dituzte, eta hiru baino ez dituzte galdu. Oraindik ez dakite euren etxean galtzea zer den, eta hamalau aste egin dituzte lehenengo postuan. Arrasateko aurrelariak izango dute lana, gol gutxien jaso duen taldea da-eta (16). Datu horiek guztiak, baina, "apurtzeko" daude.

Leitzarani irabazita, baliteke AGR igoera faserako sailkatzea

X.U.

Oraindik hiru jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko. Hala ere, AGR Arrasatek bihar arratsaldean (Musakolan, 18:15ean) Leitzarani irabazten badio, baliteke matematikoki igoera faserako sailkatzea. AGR hirugarrena da, eta laugarrenak lau puntura daude.

AGR Arrasatek bihar arratsaldean jokatu du oraingo asteburuko jardunaldia, eta Arandoren mutilek gustura hartu dute albiste hori. Normalean, domeka

eguerdian, jokatzen dute, eta oraingo asteburuan, behintzat, zapatu gaua aprobetxatu ahal izango dute. Orain egin behar dutena da, bihar arratsaldean Leitzarani irabazi eta igoera faserako sailkatu. Hala, izango dute gau partean zer ospatu. Goiko postuetan ez badaude ere, Jonan Ezkibekek esan digu kontuz ibili beharko direla Leitzaraneekin: "Eurak jaitsierako postuetan daude, eta larri dagoen taldea arriskutsua izan daiteke. Azken asteotan hainbat ezusteko eman dituzte, goialdean zeuden taldeei irabaziz. Orain arte, euren kon-

tra jokatu izan dugunean irabazi egin diegu, baina ezin gara lasaitu".

LAU PUNTUKO ALDEA

AGRk aukera handiak ditu oraingo asteburuan igoera faserako sailkatzeko: "Hirugarren postuan gaude, eta laugarren lekuan Ormaiztegi eta Usurbil daude, puntuz berdinduta. Oraingo asteburuan elkarren kontra jokatu dute; ikusi egin behar zer egingo duten".

Besteei begira egon aurretik, AGRk badauki bihar kale ez egitea dela lehenengo eginbeharra.

FOTOKIROLA



Lana ondo egin eta gero, deskantsua

Oraingo asteotan albiste izan ditugu Leire Ezpeleta (eskui-nea) eta Isa Casado (ezkerrean). Arrasateko bi eskiatzaile horiek Euskadiko Kopako hiru lasterketa egin dituzte, eta aurrealdean izan dira guztietan. Joan den astean, Baqueiran, Leirek irabazi zuen lasterketa, bigarren aldiz. Orain deskantsua hartuko dute, martxoaren 9an Pierra Mentako lasterketan (Alpeak) izango direlako.

PILOTA

Udaberri Txapelketa barruan, Arrasateko pilotariak Elgoibarrera joango dira



Elgoibarren jokatu dutela dakiten arren, Aitzol Lazkanok esan digu delegatuek oraindik ez dietela zehaztasun gehiago eman: "Normalean, azkeneko momentuan esaten digute noiz jokatu dugun, eta horren arabera erabakiko dugu ze bikote jokatu duen. Senior mailan Urribarren, Agirre eta ni gaude. Nik, baina, zapatu arratsaldetik aurrera ezin dut jokatu, eta Urribarren eta Agirre ere, lan kontuak direla-eta, mugatuta daude. Hala, noiz jokatu dugun esaten digutenean osatuko dugu bikotea".

ATLETISMOA

Arrasateko taldeak erabaki du Euskadiko Txapelketara ez joatea, protesta modura

Zapatu arratsaldean jokatu dute Euskadiko Pista Estaliko Atletismo Txapelketa, baina Arrasateko taldeak txapelketa horretan esku ez hartzea erabaki du.

Hasiara baten, biharko txapelketa goizean jokatu behar zuten, baina Gipuzkoako eta Euskadiko atletismo federazioek erabaki dute txapelketa goizetik arratsaldera pasatzea, eta Arrasateko taldeari ez diote abisurik eman. Fernando Zufiriaren esanetan, ez da lehenengo aldia, eta protesta moduan, ez dira joango. Goizean, baina, markak hobetzeko atletismo probak izango dira Anoetan, eta hantxe izango dira arrasatearrak.



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Eraman dotoretasuna
zure etxera



ELKARRIZKETA

IÑAKI SARATXAGA/ARGAZKILARIA ETA MARGOLARIA

“Tituluak edukitzea baino garrantzitsuagoa da nork bere ideiak garatzea”

IKER BARANDIARAN

Iñaki Saratxaga bilbotarrak ibilbide handia egin du argazkilaritzan eta margolaritzan. Besteak beste, argazkiak, collageak eta ikatzi-iriz egindako marrazkiak uzartzen ditu bere lanetan. Arregi galerian erakusketa bitxia jarri du, eta martxoaren 11ra arte egongo da ikusgai.

Batez ere argazkilaritzan egindako lanengatik zara ezaguna, baina margolanak ere egiten dituzu, ezta?

Bai, hala da. 15 urterekin margolanak eta marrazkiak egiten hasi nintzen eta hainbat eskolatan ikasi nuen. Horren ostean, argazkilaritzan hasi nintzen, baina ez diot inoiz margotzeari utzi.

Atzerrian ere ibilia zara, eta eskola ospetsuetan ikasi duzu...


Bai, bidaiatzeko aukera izan dut eta ez dut denborarik galdu.

1982an, Liman (Peru) Oskar Pachecorekin argazkigintza ikasi nuen; 1984an, Bilbon, ikusentzunezko ikasketak egin nituen; 1986an, Florentzian (Italia) eta 1987an, Londresen, arte plastikoaren gaineko irakaspenak jaso nituen.

Gaur egun Euskal Herrian badago halako ikasketak egiteko aukerarik?

Jakina, hemen ikasteko aukera badago, baina ikasketak egitea ez da garrantzitsuena. Askok hala uste duten arren, margolanak edo argazkiak egiteko ez da derrigorrezkoa ikasketak egitea. Garrantzitsua da oinarri bat hartzea, ezagutza txiki batzuk izatea, baina bestea norberak egin behar du. Nork bere ideiak izan behar ditu eta horiek garatu. Titulurik eduki edo ez, egiten dakizuna erakutsi behar duzu.

Azkeneko bost urteotan erakusketak egiten zabilta, baina horren aurretik zer egiten zenuen?



IÑIGO ARREGI

Gauza asko egin ditut. Londresen eta Madrilen hainbat aldizkarirendako egin nuen lan; 80ko hamarkadaren erdialdean ezker abertzaleko talde askorendako artelanak egin nituen: Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak, Herri Batasuna... Orain dela bi urte, AuB taldearendako *Gernika* margolanaren erreproduzio bat koordinatu nuen, tamaina berean. Tarteka, egiten ditut halako zenbait lan, eta gustuko dut.

Arrasaten jarri duzun erakusketan mota askotako lanak aurki ditzakegu: argazki-collageak, erliebedun marrazkiak...

Bai, aspaldian egiten ditudan lanen nahasketa da. Batetik, Bilboko Arte Nagusia ekimenerako egin nituen *Loreak* bildumako hainbat lan; bestetik, erliebedun buruak, egunotan buru-belarri egiten ditudanak; eta, azkenik, Andy Warholek egindako erretratuen gaineko lan ironikoak. Denetatik apur bat dago.



Amagara

GERTATU ZURE AZALA
2005eko ASTE SANTURAKO

Solariumeko eskaintza berezia

6 saio + 1 doan
42 euro bakarrik

Otsailaren 21etik martxoaren 21era

Zure beltzaran-kolorea zaintzen dugu eta indarrean dagoen legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditugu

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sensibilitatearen arabera ere.



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldagian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

ELKARRIZKETA

IÑAKI BERAETXE / 'OSTERTZ' FILM LABURRAREN ZUZENDARIA

"Industriak irteera eman beharko lieke film laburrei, hori da premia handiena"

IKER BARANDIARAN

Eguenean, martxoaren 3an, euskarazko bost film labur emango dituzte Amaia Udal Antzokian: *Ostertz*, *Lepokoa*, *Amnesia*, *El salto de Beamon* eta *Amuak*. Topaguneak eta AEDk antolatu dute, Korrika Kulturaren barruan. Iñaki Beraetxe zuzendariak esku hartuko du emanaldian.


Askok aktore eta aurkezle zarelako ezagutzen zaituzte, baina hainbat film labur eta bideo klip egin dituzu...

Bai, hainbat talderen bideo-klipak egin ditut: Sen, Lau Itzal, Kokein, Surfin Kaos... Horrez gain, lau film labur zuzendu ditut orain arte: David Errastiren gidoi baten oinarritutako *Txerri hankak* filma, *gore* generoan kokatuta dagoena; desagertzeko zorian dagoen Igarako igelaren gaineko dokumental bat; *Osaba Jaxinto* izeneko beldurrezko istorioa; eta orain aurkeztu dudana *Ostertz*. Orain arteko lan guztiek bigarren saria irabazi dute Lekeitioko jaialdian. Horrez gain, *Osaba Jaxinto* lanak bigarren saria irabazi zuen Gasteizko ikus-entzunezko jaialdian.

Iñigo Kintanarekin lan egiten duzun lehenengo aldia da? Eta zein da *Ostertz* filmean kontatzen duzun istorioa?

Ostertz Iñigo Kintanarekin erdibana egin dut. Aspalditik egiten dugu lan batera. Kintana maila handiko profesionala da, eta Madrilen dabil lanean. Ea Euskal Herrian lana ematen dioten!

Azkeneko lan horretan, espetetik irten den droga-trafikatzaile



EITB

"Espetetik irten den trafikatzaileraren istorioa kontatu dugu 'Ostertz' lanean"

"Film laburretan ez da guztia azaldu behar, baina kontua ez da ikusleek ezer ez ulertzea"

baten istorioa kontatzen dugu. Birgizarteratzearen zailtasunak azaltzen ditugu.

Zer gurago duzu, aktore eta aurkezle lan egitea edo kamera atzean lan egitea?

Bakoitzak bere zera dauka, biak ditut gustuko. Aberasgarria da biak egitea, bestearen lana zein den hobeto ezagutzeko. Errealizadore lana egiten dudanean, badaikit aktoreak zer pentsatuko duen; eta baita alderantziz ere.

15 minutu nahikoa da istorio on bat kontatzeko? Ez duzu behar denbora luzeagoa?

Batzuetan 15 minutu gehiegi dela uste dut. Neurria hartzea komeni da, baina ez da erraza. Batzuek oso iraupen txikiko film laburrak egiten dituzte, baina ikusleak ez du haria ondo ulertzen eta ez du harrapatzen egilearen mezua. Beste batzuek, berriz, guztia *egosita* eta azalduta ematen dute, eta hori ere ez da aproposa; ez da guztia azaldu behar.

Batzuek film luzeak eta film laburrak LP eta singleekin konparatu dituzte. LP batzuek soberan asko dutela, eta singleek mami guztia trinkotuta.

Ez da beti horrela izaten. LPetan eta film luzeetan denetatik dago: adibidez, RIP taldearen *No te muevas* diskoak ez dauka ezer soberan. Film batzuekin ere hori gertatzen da. Hala ere, film laburrek beste lengoiaia bat dute. Ipui-ekin ere gauza bera gertatzen da. Ezin dira liburuekin konparatu.

Zer deritzozu Kimuak ekimenari?

Bada zerbait, baina ez da nahikoa. Onena nazioarterako aukeratzea da. Industriak irteera eman beharko lieke film laburrei.

KULTURAPILULAK

'Alejandro Magno' eta tigreen gainek film bat ikusgai

Gaurtik, egubakoitza, asanbera henera arte (biak barne), *Alejandro Magno* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Pertsona historiko horren inguruan neko dramak 173 minutu irabazten du, eta Oliver Stonek zuzendu du (*Platoon*, *Giulio*, *infierno*, *Comandante*...).

Alejandro Magno gazte zena, 32 urterekin, baina oraindik hainbat abentura izan behar du pasarte bizi izan zituena. Hainbat gerra irabazi zituen, eta zeresan handia izan zuen horietan aurreko urteetan. Horren gaineko bertsio polemikoa egin du Stonek.

Izen handiko aktoreak esku hartu dute film horretan: Colin Farrell (*Intermission*), Jodie Foster (*60 segundos*), Angelina Jolie (*60 segundos*), Val Kilmer (*Sueños rotos*, *Planeta roja*...); eta Anthony Hopkins (*Hannibal*, *La mano humana*...), besteak beste.

Bitxikeria moduan, zuzendakariak Razzie sarietan irabazteko film txarrenaren saridun izan da eman diotela.

Horrez gain, etzi, domingorik gabeko eguna, 17:00etan. *Dos hermanas* filmak 109 minutu irabazteko emango dute, eta Jean-Jacques Annaud zuzendu du (*En busca del arcángel*, *El nombre de la rosa*, *El migo a las puertas*...).

Hustutako tenplu baten inguruan bizi diren bi tigre-kumeen istorioa da. Ehiztari baten baxitu egingo dituzte, eta horiek baxitu egingo dituzte. Etorkizuneko tigreak aurre borrokatu beharko dute.

Bi tigreez gain, proiektuak nistak honako hauek irabazteko: Guy Pearce (*La máquina del tiempo*, *Memento*...); eta Claude Dreyfus (*La ciudad de los niños perdidos*...).



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxes: 943 77 14 76

BOTEPRONTUEN

Enrique Dolara

ZALDIBAR ERROTULOAK

XABIER URTZELAI

Gaiterue da Enrique, eta Arrasate Musikalen tuba-jolie. Oin-guen, baiñe, taillerrien topau dou, lanien. 23 urte egin dau Enriquek Zaldibar enpresan. Lehen, erramintta makiñekin egitten euen lan. Baina 90eko hamarkada hasierie gogorra izen zan, eta enpresiek beste norabide bat hartu euen.

Zetan egitten dozue lan?

Enpresendako, komertziuen-dako eta holakuendako grabaziñuek, rotulaziñuek eta display-xek egitten dou.

Eta, loguek zeuok asmaketan dozue, ala soportie egittie da zeuon lana?

Normalien agentziekin egitten dou lan, eta horreik preparaute eukitten daue loguek. Hortan, geure lana izeten da horrei logo horrei soportie ipinttie. Hala eta be, komertzio txikiñendako be egitten dou lan.

MU, Arizmendi... Kliente fuer-tiek dauketzue.

Horreik agentziekin egitten daue lan, eta guk agentziekin egitten dou tratue.

GOITBko furgonetan be ibilli zarie lanien.

Bai, geuk ipiñi gutzen GOITBko loguen binilue. Gaiñera, badauket anekdota bat kontetako: furgonetie Laubideko parkiñien hartu biher geuen, pinttau barri euen. Kontue da parkiñeko sarrerie eta urteerie ez diela iguelak. Sarrerie haundixae da, eta furgonetie marka barik atarateko Artemanekuek etorri biher izen euen. Furgoneta barrure bost lagun sartu eta halaxe atara geuen.

Badakit zeuon lanien muga haundixek eukitten dozuela.

Bai, komertziuek eta enpresek ezin daue-eta gure dauen moduko kartel edo panelak ipiñi. Kapitale-tan publizidadeko panel oso ikusgarrixek egoten die, baiñe hamen ez dau horretarako kulturarik. Gaiñera, erdialdien muga haundixek ipintten daue. Normala be bada.

Nun ipiñiko zeuke errotulo eder bat?



"Kapitaletan panel eta errotulo haundixek ikusten die; baiñe hamen ez dau holakorik"

Ba, egixe esateko, ez dot pentsau. Adibidez, Vittorixan oso loneta ikusgarrixe dau, San Antonio kalien. Holakuetan asko fjetan naz. Mondraguen, adibidez, MCCkuek oso panel ikusgarrixek egitten daue; errex ikusten dienak.

Ze da zeuon laneko gauza txarrena?

Saltzen ibilttie. Neu taillerrien ibiltten naz gustora, baiñe komertzial lanetan be ibilli biher izeten naz, egitten doun lanak erakusten.

Eta onena?

Lana ondo egitten dounien hartzen doun poztasune.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Musikien alde postura haundi-

"Neuretako kapritxue izengo litzake Otsagabiako Muskildako ermittan hango abestixek jotie"

xaue egin biherko leuke Udalak. Ikusi besterik ez dau Arrasate Musikaleko lokala zela dauen.

Ze dauko ona Mondraguek?

Jente asko dauela lan egitteko goguekin.

Ze falta jatzu zeuri?

Ezer be ez.

Eta, ze dauketzu sobran?

Buruko miñek.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Umiekin ikusi dot azkena, *Los Invencibles / Danzas y bailes de Navarra* da leidu doten azkena / Erramun Martikorena.

Kapritxo bat.

Otsagabiako (Nafarroa) Muskildako ermittan hango abestixek jotie.

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Iriarte

Mexikora / 2004ko abuztuan

Joan den astean esandako moduan, hamabost egun lan egin eta gero bidaiatzeari ekin zion Amaiak: "Azken baten, Mexiko ezagutzera joan nintzen hara, eta hango ospitalean lan egitea zer zen ikusi nuen, gurago izan nuen bidaiatzen hasi. Horretarako aukera geneukan, eta ez zen inolako arazorik izan". Hegazkina hartu, eta zazpi lagun joan ziren Txiapas aldera, San Cristobal de las Casas-era: "Ez genuen inolako arazorik izan. Hori bai, noizean behin hango nekazariak errepidea moztu eta edozein birjinaren izenean diru-laguntza eskatzen zuten".



"Hegoaldean gutxik laguntzen dute ezer eskatu barik"

Berehala konturatu zen Amaia iparraldearen eta hegoaldearen artean dagoen aldeaz: "Iparraldean jendea laguntzeko prest egoten da; hegoaldean ere bai, baina diru truke". San Cristobalgo merkatuan izan ziren, eta hainbat gauza ikasi zituzten han: "Lehena, goizetan ezin dela tratuan egin. Eskatzen dutena ordaindu egin behar da. Hori bai, arratsaldeetan, saldu ez dutena saltzeko tratuan hasten dira. Alde horretatik, bidaiari ere konturatu nintzen taldetxoan joanez gero tratuan egiteko aukera handiagoa dagoela; bakarrik joanda, pentsatu ere ez. Deigarria egin zitzaidan, baita ere, hango gazte-xoek saltzeko daukaten abilezia. Eskuz egindako panpina txikiak zituzten, baina bat erosiko geniela esandakoa, panpinak familia bat zirela eta erostekotan familia osoa erosteko eskatzen ziguten. Gainera, ondo bereizten zuten Marcos komandante-ordea nor zen, beltzez margotzen zutelako. Baina haren moduko beste buruzagi asko zituzten". San Cristobalen, maien medikuntzaren gaineko museoan ere izan ziren, eta handik Palenque aldera egin zuen zazpi laguneko koadrilak: "Autobusean joan ginen, eta tartean ikusi genituen Cascadas, Agua Azul... Palenque bisitatu eta gero, zazpi laguneko taldeari banatzeko ordua iritsi zitzaion: "Gehienek ni baino lehenago itzuli behar zuten etxera, eta bakarrik jarraitzea erabaki nuen, bazegoen-eta zer ikusi".

XABIER URTZELAI



Lehenengo egunetan lagunekin ibili eta gero, bakarrik jarraitu zuen Amaiak.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Aretz

taberna

"Oilaskoak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

TXAPELKETA/ Debagoieneko erretiratuen mahai-jokoan txapelketa

Musakolakoek eskuratu zituzten sari gehien Debagoieneko txapelketan

IKER BARANDIARAN

Jendetza handia izan zen eguaztenean, Abaroa elkarte-an, Debagoieneko erretiratuen mahai-jokoan txapelketan. Musakola elkarteak bi sari jaso zituen; Bergarako San Josepek bat; eta Toki Argik beste bat. Dominokoa bukatu barik zegoen oraindik.

Ibarreko erretiratuen elkarteetan mahai-jokoan txapelketak egiten dituzte, eta horietatik irabazleak Debagoieneko finalean lehiatzen dira. Abaroan egin zuten finala, eta arratsaldeak luze jo zuten. 16:00etan hasi ziren jokoan eta 19:00etan sari banaketa egin zutenean, domino txapelketa bukatu barik zegoen oraindik.

Guztira 33 bikotek eta lau gizabanakok esku hartu zuten, eta ibarreko arduradunak ibili ziren guzti hori koordinatzen. Behin jokoak bukatuta, sari banaketa egin zuten, eta horren ostean, askaria. Txorizoa, odolkiak, patata-tortilla eta gazta irasagarriekin. Lan handia hartu zuten sukaldariek, 90 lagunendako jantaria prestatu behar izan zuten-eta.



Irabazleen artean, ia bailara osoa ordezkatuta gelditu zen.

MUSAKOLAKOEN, BI SARI

Xakean Toki Argi elkarteak Angel Egidon izan zen irabazlea. Bergarako San Josepe elkarteak Antolin Marchena izan zuen aurkari. Briskan, Musakola elkarteak Mikaela Muruak eta Juanita Gilek eskuratu zuten saria,

Antzuolako elkartearen kontra lehiatu ziren.

Musean -8 reyes- Bergarako San Josepe elkarteak Filiberto Pescador eta Abraham Sanchezek Musakolakoak garaitu zituzten. Tutean Musakolako osaba-iloba

Elias eta Felix Urangak osatutako bikoteak irabazi zuen txapelak Aretxabaletako Basotxo elkartearen kontra.

Dominoan lehia handia izan zen eta sari banaketa egin orduko, oraindik ez zuten bukatu.

Horiez gain, beste elkarte hauek ordezkatu dute ibarra Gipuzkoako finalean: musean -4 reyes- eta seieta Oñatiko Pakelekuak; punttoan Antzuolakoak; eta igel-tokan eta tokan San Josepekoak.



Omenaldia, Iturbiden dauden Uribarrikoei

Otsailaren 14an, Uribarriko erretiratuen elkarteak omenaldia egin zien Iturbide egoitzan bizi diren Uribarriko lagunei. Urteroko hitzordua dute hori, eta gaur egun auzo horretako hamabi lagun bizi dira egoitzan: Ignazio Guridi, Cruz Balantzategi, Rafaela Etxaurre, Milagros Heriz, Dionisio Palma, Andres Rojo, Nieves Gartzia, Jose Penas, Angeles Gallastegi, Joaquina Arribillaga, Servando Polo eta Antonio Letona.

Lagun horiek oso harreara ona egin zieten elkarteko ei. Egoiliar guztiak opariak -kolonia, gela eta krema- jaso zituzten, eta gustura egon ziren berriekin. Bestalde, datorren astean, elkarteak Udalarako bidean dagoen moja komentura joango dira, 80 urtetik gorakoei omenalditxoak egitera. /I.B.

LABUR

Toki Argirekin Parisera joateko aukera oraindik

Toki Argi erretiratuen elkarteak aditzera eman du Parisera joateko oraindik eman daitekeela izena. Maiatzaren 12tik 19ra joango dira Frantziako Estatuko hiriburura, eta herriko edozein erretiratutuan joan ahal izango da.

Horrez gain, erretiratuen elkarteak hainbat ekimen iragarri ditu: martxoaren 11n, batzar orokorra egingo dute; martxoaren 19an, Iruñera txangoa egingo dute; eta apirillean, oroimen eskolak egingo dituzte.

1931n jaiotakoek jaia egingo dute martxoaren 5an

1931n jaiotakoek urteroko hitzordua egingo dute martxoaren 5ean. 12:30ean meza entzungo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, txikiteoa egingo dute. Eta, 14:30ean, Hostalean bazkalduko dute. Interesatuak dei dezatela honako telefono zenbakira: 943 79 0808 (Juan Jose Uribarren).

1937an jaiotakoek urteroko hitzordua dute hilaren 12an

1937an jaiotakoek urteroko hitzordua egingo dute martxoaren 12an. 12:30ean meza entzungo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, txikiteoa egingo dute. Eta, 14:30ean, Hostalean bazkalduko dute. Interesatuak dei dezatela honako telefono zenbakira: 943 79 10 57 (Riviere).

Calpera (Alacant) egingo duten bidaiari, aldaketa

Abaroa erretiratuen elkarteak Calpera (Alacant) bidaiari antolatuta du. Hala eman genuen aditzera orain dela gutxi, baina aldaketa txiki baten berri eman digute. Hala zuzen ere, bidaiari maiatzaren 13tik 22ra bitartean egin beharrean 12tik 21era egingo dute. Aldaketa hori Calpeko hotela eragin du. Abaroako batzarkideek lehentasuna izango dute, baina herriko gaitortzeko erretiratuek ere eman dezakete izena.

Bestalde, Abaroa erretiratuen elkarteak batzarrak bazkideei gogoratu gura dituzte aurtengo bazkide kuota ordaintzeko epea hilaren 28an bukatzen dela.

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen eliza?
Arrastoa: auzo hartatik gertu samar Urkulu urtegia dago.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Musa maionesa
450 ml

0,93 € 155 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GOIZANE ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Goizane!

Galderen erantzun zuzena:

San Baleixo.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko leku edo pertsonaia mitologikoak

'EL MUNDO ENCANTADO DE...' / J. DUESO

Oraingo honetan, Arrasateko zenbait leku aztertuko ditugu, mitologiarekin duten loturarengatik; pertsonaia berezi bat ere ageri zaigu hemen inguruko kondairen artean:

Arrasate Gaina: arrasatearrek ikaratzen zituen dragoia edo herensugea akabatu zuten leku horretan.

Kanpanzar: Mari jainkosaren bizilekuetako bat izan zela diote herriko kondairek.

Lamiñen Eskaratza: Garagartzako kobazulo bat da; kondairak dioenez, urrea dago han lurpean, urruti hil zen gaizkile batek lurperatuta. Diman dagoen kobazulo bati ere izen bera ematen diote.

Mandogain: edo Mandoain. Aspaldi parke publiko bihurtu zuten: Santa Barbara gaina da, hain zuzen ere. Dragoiak Arrasateko biktimak jaten zituen lekua da hura.

Martin Abade: Gesalibarren Mateo Txisturi ematen dioten izena da. Inork ez du lortu ehiztari hura eta haren txakurrak ikustea, bai, ordea, txakurrek muturretatik botatzen duten sua.

Mateo Txisturen gainean,



Mateo Txisturen gaineko marrazki bat, Juan Luis Landa ilustratzaileak marraztuta.

berri, kondairak dio abadea zela, Elosun, eta oso zaletua ehizan. Behin, meza esaten zegoela, txakurrak zaunka entzun zituen, ehiza-piezaren bat zegoela-edo abisu ematen. Abadeak, orduan, Forma Sakratua aldarrean utzi eta eskopeta hartu oste-

*Kondairak dioenez,
Garagartzako
Lamiñen Eskaratza
kobazuloan urrea
dago lurperatuta*

an, korrika atera zen harrapakinaren atzetik. Zigortu egin zuen Zeruak abadea halako jokatibidearengatik eta harrezkero, egunero-egunero, urtero-urtero korrika segitu behar izan du gizonak, betiko, ustezko harrapakinaren atzetik. Diote ekaitza

handiak daudenean haren presentzia sumatu egiten dutela gizakiek. Txakurren zaunkak entzuten dira bakarrik, eta muturretatik botatzen duten sua ere ikusten dute batzuek. Oro har, Euskal Herri osoan oso hedatuta dagoen kondaira bat da, baina, bereziki, Udalaiz mendiarekin eta han inguruko lekuekin lotzen dute.

Salturri: Arrasateko etxea. Ukuiluan kobazuloa du eta diote antzina laminak bizi zirela han. Zulotik ateratzen zirenean, paretetan eskuen markak uzten omen zituzten.

Udalaitz: mendi horren lekuren batean urrez betetako kutxa bat dagoela dio kondairak: "eguerdiko hamabietan eguzkiaren izpiek zuzen jotzen duten leku horretan".

Dixana: Arrasateko base-rria. Kontatzen dutenez, base-rriko emakume bati laminek urrezko gauzaren bat eman zioten, etxeko jeinu edo iratxoei mesede bat egitearren. Baldintza bat ipini zioten: atzera ezin zuen begiratu kanpora ateraterakoan. Baina emakumeak ezin izan zion jakin-minari eutsi eta atzera begiratu zuen. Une hartan bertan desagertu egin zen urrezko oparia.

EUSKAL HERRIKO LEIENDAK

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko otsailaren 25a / 141. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aurrekontua onartu du udalbatzarrak: iaz baino %36,4 gehiago inbertituko du Udalak

UBANE MADERA

1.837.707,80 euro. Horixe da Udalak 2005erako duen aurrekontua. Hortik zati handi bat inbertsioak egiteko erabiliko du: 652.103,44 euro. Horrek esan nahi du iaz baino %36,4 gehiago inbertituko duela. Zati bat Haur Hezkuntzaren eraikinerako gorde dute.

Handik eta hemendik kendu eta azkenean Udalak lortu du 120.202,42 euro gordetzea Haur Hezkuntzarako. San Martin Eskolaren ondoan eraikin berria egiteko erabiliko dute, eskolako eskatutako moduan. 0-2 urteko umeen hezkuntzarako izango da.

LANAK HIRIGINTZAN

Udalak egingo dituen bestelako lanen artean, berriz, honako hauek dira nabarmenenak: Eguzkierripako saneamendu, ur eta gasifikazio proiektua: 417.101,13 euro. Horrekin batera, Arexolako lanak ere aurten egingo ditu, nahiz eta iazko aurrekontuan sartu. Lan horietarako 231.875,40 euro erabiliko ditu.

LANAK ZERBITZU SAILEAN

Bestalde, eskolako gela batzuk margotzeko daude. Hala, Udalak



Aurrekontutik 120.000 euro pasatxo Haur Hezkuntza zerbitzurako eraikina egiteko erabiliko du Udalak; eskola ondoan eraikiko dute.

aurten erdiak margotuko ditu eta beste erdiak datorren urtean. Horrekin batera, kiroldegian zerbait konponketa egiteko asmoa ere badu (19.500 euroko inbertsioa egingo du). Eta gogora ekarri du zaborrak batzeko zerbitzuan plastikoak batzen ere hasi

direla eta horrek ere kenduko diola zati bat aurrekontuari.

EUSKARA SAILA

Euskara batzordean, Udalak onartu berri duen biziberritzeko plan nagusian jasotzen diren ekintzetan indar berezia jartzea da asmoa.

Sentsibilizazio ekintzak, merkataritza euskalduntzeko saioak, udalekuak euskaraz, euskal tradizioa berreskuratzeko ekintzak... egingo ditu. Gainera, euskararen aldeko ekimenei, herriko euskara elkarteei eta euskara ikasleei laguntzeko asmoa ere badu.

KULTURA SAILA

Kultura arloan, iaz egindako emen berak egingo ditu, batzorde horren aurrekontua iazko berdelako, ez du igoerarik izan: San Martin jaiak, auzoetako jaiak, bereziak; era berean, jarraituko du 2004an hasi zuten liburutegiaren informatizazioa egiten, eta, azken duen neurrian, eskaintza kultural indartzeko asmoa du. Horrez gainera, kirol eta kultura elkarteak dirulaguntzak emateko ere gogoratu du aurrekontuaren zati bat.

MENDIKO SAILA

Mendiko Sailari dagokionez, gaurtik handiena mendiko bideak garbitzen erabiltzeko asmoa du Udalak. Lehenengo, pinuak margotzeko erabiltzeko asmoa du, eta gero bideak berreginatu dituzte. Esaterako, San Adrianerakoa.

ASMOAK, ETORKIZUNERAKO

Bukatzeko, aurtengo aurrekontuan ez sartu arren, premia handia duten bestelako lanak ere egingo dituzte asmoa du Udalak; esaterako, Zabolatik Untzillara bidearen konponketa (Diputazioari eskatu diote dirulaguntza eta etxaguendarrekin hitzartu duena sinatzen ahaleginduko du auzoko ur, saneamendu eta gasifikazio lanak egiteko.

Bigarren eta hirugarren, zapatuko saioan

U.M.

Andere Arriolabengoa bigarren geratu zen joan den zapatuko kanporaketan. Iker Agirre, berriz, hirugarren izan zen. Edozelan ere, biek nabarmendu digute ez zela maila alturik izan Araiako saioan, ekitaldi hotza izan zela. Bihar, bigarren kanporaketa jokatu dute.

“Uste dut hanka-sartzerik txikiak egin genituenei eman zigutela puntu gehien”. Hala adierazi digu Andere Arriolabengoa zapatuko saioaren laburpena egitean. Saio pena-

garri samarra izan zela kontatu digu, zati batzuetan motela: “Ez dakit zergatik izan zen, hotz handia egiten zuen... Eta, gainera, normalean egiten ez ditugun lanak egin behar izan genituen. Akaso horregatik izan zen”. Gaineratu digu egindako lana ikusita ez zuela espero bigarren geratzerik. Baina halaxe izan zen. Zigor Enbeitak irabazi zuen 119 punturekin eta haren atzetik geratu zen Andere Arriolabengoa, 116 punturekin. Edozelan ere, zalantza handiak ditu finalaurrekora pasatzearen gainean: “Bigarren kanporaketa hobe izango dela uste dut”.

IKER AGIRRERENDAKO, MOTZ

Iker Agirrek, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen, Lander Mezarekin berdinduta (biek 102,5na puntu eskuratu zituzten). “Espero baino maila txikiagoa izan zen, ez zen guztiz txarra izan,

baina bai baxua”. Iker Agirrek gaineratu digu berarendako txarrena saioaren moztasuna izan zela: “Nahiago dut luzeagoa”. Eta bakarkako saioan beste probetan baino hobeto jardun zuela.

Antolatzaileen esanetan, berriz, “Andere Arriolabengoa-rengandik gehiago espero zitekeela esan daiteke, baina gainontzeko sei uste baino maila politagoa eskaini zuten”.

BIHAR, BESTEA

Kontuak kontu, biek egin dute dagoeneko berea, eta orain, bihar jokatu den kanporaketako puntazioaren zain egon beharko

dute, bi saioetan puntuazio altuena lortzen duten zazpi txikiak pasatuko dira eta txikiak laurrekoetara. Biharko saioan Lapuebla de Labarkan jokatu dute, Assa Ikastolako zinemalari toan, 19:00etan hasita.

KORRIKA KULTURALA

Bestalde, asteburuari begira, esan beharra dago Korrika Kulturaleko saio batean parte hartu duela Andere Arriolabengoa. Ekitaldia Bizkaian izango da Getxon. Hain zuzen ere, Auzo IV. Abra saria jokatu dute. Andres Isasi musika eskolako 19:00etan hasiko da.

Parte-hartzaileen ustez, espero baino maila baxuagoa izan zen zapatuko kanporaketan

KIROLA

Zazpigarren urtez, Mainer Unda oletarra txapeldun borroka librean

U.M.

Pozik dago Mainer Unda asteburuan egindakoarekin. Hori bai, zera ere gaineratu digu: "Pentsatutakoa baino gehiago kostatu zait". Kontuak kontu, aurkari biei gailendu zitzaien Aramaioko borrokalaria, eta beste urtebetez Espainiako Txapelketa irabazi du.

Joan den zapatuan jokatu zuen Mainer Undak Espainiako Borroka Libreko Txapelketa. Gijonen izan zen.

Mainer Undaren mailan, 72 kiloko senior mailan, bost borrokalaria ziren lehian, baina hiru ziren txapelketa irabazteko gehien preparatu zirenak: madrildar bat, kanariar bat eta Mainer Unda oletarra.

Hala, bi taldetan banatu zituzten lehiakideak, eta Mainer Undari madrildarraren kontra jokatzeari egokitu zitzaion aurrena. Galten hasi zela kontatu digu: "Bestetan baino presio handiagoarekin joan naiz txapelketara, beste biak (madrildarra eta kanariarra) AEBetan entrenatzen ibili dira eta". Horrek urduritasuna eragin ziola kontatu digu, bi kontrarioak AEBetatik maila altuarekin etorri zirelakoan. Hala, lehenengo asaltoan galdu egin zuen. Eta normalean, hori alde handia izaten da kontrarioarendako. Baina oletar borrokalaria berehala kon-



ESTHER ETA EVA

Mainer Unda Espainiako Txapelketako dominarekin eta diplomarekin.

turatu zen AEBetan entrenatu arren beste borrokalarien maila ez zela bestetan baino hobea. Eta, hala, buelta eman zion norgehiagokari. Bigarren eta hirugarren asaltoetan oletarra gailendu zitzaion madrildarrari.

Handik aurrera, bidea dezentte erraztu zitzaion Mainer Undari: "Lehenengo borroka jokatu eta gero, askoz ere lasaiago aterantz nintzen eta lehenengo asaltoan irabazi nion kanariarrari". Hain zuzen ere, borroka librean

esaten duten moduan, "tokao" utzi zuen Undak Kanariar Uhartetako borrokalaria. Horrek esan nahi du lurra ukiarazi ziola lepoarekin. Eta, hori eginez gero, borroka irabazi egiten da.

PODIUMA ZAPATUAN

Zapatuan bertan eman zioten Mainer Undari zazpigarren urtez Espainiako txapeldun izendatzen duten domina eta diploma. Borroka Libreko Espainiako Federazioako Angel Lopez Rojo presidentek eman zizkion sariak.

Horrenbestez, eta domekako borroka libreko gainerako norgehiagokak ikusi eta gero, etxera itzuli zen Oletako espedizioa.

TIRABIRAK ARABAKO FEDERAZIOAREKIN

Baina guztiak ez dira albiste onak Arabako borroka libreaki dagokionez. Izan ere, Mainer Undak kontatu digu Luis Crespo entrenatzaile gasteiztarrek arazoak dituela Borroka Libreko Arabako Federazioarekin. Gaizki-ulertzeak eta gaizki-esanak egon direla jakin dute, entrenatzeko erabiltzen duten lokalarekin lotutako tirabirak, hain zuzen ere. Eta horrek, neurri handi batean, ilundu egiten du oletarrak Gijonen lortu duen garaipena. Espero dezagun aurrera begira gaizki-ulertzeok konpontzea eta horrek eraginik ez izatea Mainer Undaren ibilbide paregabekoan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, *Conociendo a Julia* filma emango dute, 22:30ean hasita. István Szabó hungariarrak zuzendutako film dramatikoak da. Besteak beste, Annette Bening (*Amerigan Beauty...*), Jeremy Irons (*El cuarto ángel...*) eta Bruce Greenwood (*Yo, robot...*) dira protagonistak.

DOMEKAKO ZINEMA

Anastasia filma emango dute, 17:00etan hasita. Animaziozko filma da. 94 minutu irauten du.

OPARIAK JAIOPERRIEN DAKO

Jaioperrien familiei opariak banatzen hasiko da Udala datorren astean. Debagoieneko udalekin batera, *Zorionak* izeneko Aramaioko parte hartuko du Aramaiokoak. Helburua da jaioperria euskaraz hezteko familiaren sentsibilizazioa piztea. Honako opariak emango dituzte: gomendioen eskuorri bat, umeen berbeekin hiztegi bat, CD bat umeen abestiekin eta autoan ipintzeko pegatina bat. Oraingo honetan, 0-2 urteko umeen gurasoei ere emango dizkiete opariak.



Jon Agirrereren alde ekimen gehiago

Orain dela bi aste eraman zuten Jon Agirre Logroñora. Baina presoaren aldeko Aramaioko taldeak argi utzi nahi du horrekin ez dutela ezer konpondu. Presoaren familiarendako egoera hobetu den arren, presoaren egoera lehenengo bera dela: larria. Senideek bisita egin diote Logroñon eta kontatu digute erizaindegian dagoela, lehen baino animosoago, baina gaixotasunari begiratuta, lehenengo moduan. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete orain arte presoaren aldeko ekimenetan parte hartu duten guztiei.

Bestalde, jakinarazi digute oraingo barikuan egingo duten presoaren aldeko karteladan (19:30ean) Jon Agirrerendako telegramak batuko dituztela. Eta ekimen gehiago egiten segitzeko asmoa dutela ere esan digute.

ERRETRATUZAHARRA

Santa
Barbarako
zuhaitzarena

Santa Barbara parkean bazen lehen zedro handi-handi eta zahar bat, Abarrategi familiak landatu zuena. Baina 1941ean, haize izugarritzko batek bota egin zuen. Sustraiak eta guzti aterata utzi zuen, hankaz gora. Otsailaren 15a zen.

Arrasatear asko igo ziren hura ikustera, tartean gure argazkian azaltzen diren herrikideak. Ezkerretik eskumara begiratuta, honako hauek dira: Rufino Garro *Pintxe*, Joxe Lasa, Jose Maria Ezkurra *Uba* (*La Capitana* ere esaten zioten, gerran hura agertzen zenean guztiak tinko ipintzen zituen-eta), makurtuta dagoena Jesus Letona da, goian dagoena, berriz, Agustin Azkoaga da, gero Modesto Otadui *Labe* dator, betaurrekoduna Pablo Ezkurra da eta eskuma-eskumako gizonezkoa Pedro Atxa. Mutikoak ezin izan ditugu identifikatu.

Gure berriemaileek esan digute egun hartan ibili zen moduko haize-rik nekez etorriko dela berriro. Pentsa, egun hartakoak tren bat bota zuten Zumaiako itsasadarrera. Eta



Aramaioko Kojua istripu hartan geratu zen herren.

Kontatu digute, baita ere, zedro handi haren bueltan zezen-plaza ipintzen zutela, San Juanetan. 1918tik aurrera izan zen hori. *Txatillo de Bilbao*ren denboretako toreatzaileak etortzen ziren Arrasatera. Herriko

toreatzaileen artean, Zipriano Loidi, *Larguito*... dira Santa Barbarako zezen-plazan ibilitakoak.

Bestalde, zedro handia zegoen lekuan gero beste bat landatu zutela jakinarazi digute. Beste zedro bat. Kasualitatez, goiko argazkian agertzen den Agustin Azkoaga Santa Barbaran

zegoen zedro berria landatu zuten egunean bertan. Gaur egun leku berean jarraitzen du zuhaitzak.

Argazkia: On Justino Uribealgo.
Informazioa: Agustin Azkoaga, Pedro Zumelaga eta Dabid Artzamendi.
Urtea: 1941.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Seber Altube
plaza ez da
lehengo bera...

Arrasateko erdialdea oinezkoendako jarri zutenetik hainbat urte igaro dira. Seber Altube, Maalako Errabala, Otalora kalea eta Portaloi ingurua oinezkoendako jartzea ez zen ideia batera txarra izan, baina Seber Altubek asko galdu du ordutik hona. Lanak egin zituztenean, Arrasaten lagun gehien ibiltzen zen ingurua goititik behera aldatu zuten.



≈ 1993 Portaloi nagusiendako gune bada, Seber Altube zen gaztetxo gehien elkartzen zen gunea. Egun, jende gutxi ibiltzen da hor.



2005 Kultura etxeko lanak amaitzen dituztenean Udalak egin beharko luke ahalegina Seber Altube horren *hotza* ez izateko.



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak


Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**


09:00etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia-L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65



AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa



KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIODERM VALMONT